

# KAPITALISMO TROPIKALEAN

## HERRIALDE ABERATSETAKO JENDEAK

### GARA KOLONIZATU BERRIAK

Mendebaldeko kapitalismoa egin da mundu osoaren jabe, arerio guztiak erori ostean. Planeta mugatua baldin bada, bere amaierara iritsi ote da kapitalismoa? Ez, dio Xavier Ricard Lanata antropologoak, badauka oraindik konkistatzeko eremu bat: metropoliko lurak, jendeak eta ondasunak kolonizatzea, hau da, Mendebalde aberatseko jendeok erabiltzea orain arte tropiko urrunetako kolonizatuak bezala. Horra kapitalismo koloniala mundu osoarentzako.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

**X**XI. mendeko hirugarren hamarkadan sartzean mundua gatazka sozialeretan erre-egosten ari da muturbatetik bestera, izan Txilen, Hong Kongen, Teheranen edo Frantziako biribilguneetan. Ezinezon orokortua esplikatunahian argitaratu diren liburuen artean dago Xavier Ricard Lanata Frantziako Estatuko goi-funtzionario eta antropologoaren *La tropicalisation du monde* (*Munduaren tropikalizazioa*). Lanatak berak azaldu berri du liburuen mamia ezkerreko zenbait hedabideetan plaza-ratutako artikulu eta elkarrizketetan. Agian irakurle euskaldunak estimatuko du laburbiltzea.

Munduaren tropikalizazioa kapitalismo globalizatuaren orain arteko azken fasea da. Korporazio handiak beti metropolietako gizarte eta estatuen babesean indartu izan dira, hauek bermatzen ziretelako mundu mailan arrakasta. Metropolietan aberatsetan bizi garenokiko bazituzten bete beharreko arau batzuk, baina gaur horiei paso egin diezaiekete, betidanik urruneko lurraldeetan egin dutena egiteko: aro berri honetan metropolietan berak tratatzen dituzte orain artean kolonietan tratatu zituzten gisa berean.

Gehienbat tropiko beroetan kokatuta dauden Hegoko herrialdeetan bezala, Iparrean ere gaur estatuak gero eta paper txikiagoa dauka jokoan, botere ekonomikoak aurre egiteko indarrak kendu dizkiotelako. Gorputz kolektiboak desagertzen ari da eta horrekin batera ekintza politikorik egin ahal izatea, Estatu mugatuz

masaren kontrolatzeko tresnara. Gero eta gehiago, Mendebaldeko agintari politikoei jokatzeko dute gizarte neokolonialitateko egin duten gisa berean: epe laburrari begira, berdintasun ezari ez ikusia eginez, mugarik ezagutzen ez duen kapital globalizatuaren produkzio kostu apalekin erakartzeko edonor eta edozer sakrifikatuz... Lanatak dinamika horretan daku-sa Frantziaren ongizate estatua eraisteko agintariak daramaten bidea eta horren kontrako jendearen erreakzioak (Jaka Horriak bidenabar); baina eskema berean sartzen ditu metropolietan guztiak, -euskaldunok barne, gehituko genuke guk-.

II. Mundu Gerra ostean hiru hamarkadaz eraikitako ongizate gizartearen hasi direnerako, korporazioek aurretik herrialde kolonizatuaren luze eta zabal testatuak zituzten eta baldintza basatiok orain metropolietan berrezarri nahi dituzte. Mendebaldean "aurrerapena" deitu zaio produktibitatearen hobetzeari, langileen lan orduaren produkzio handiagoa ateratzeari. Baina horretarako, aurrerapen teknologikoez gain, beharrezkoa zen energia eta lehengai merke gehiago eskuratzea. Horregatik egon da Iparreko aurrerapena loturik Hegokoei ezarritako bortizkeriari: planeta osoa arpilatu behar izan da, tropikalak deitu herrialdeetako baliabide guztiak erabiltzeko -gizakiak bezala natura eta baliabideak-.

Azken hamarkadetan kapitalak etekin iturri berri bat aurkitu du *bere etxean bertan*, orain arte gutxi jorratutako zerbitzu eta ondasun publikoetan, horiek

merkatu atera eta pribatizatzeko aukeraren. Kapitalen jabeek metropolietan desjabetzan ikusi dute hazkunderantzako pizgarri berria, horra nola zerbitzu publikoak pribatizatu eta eraitsiz ase nahi dituzten inbertsiogile handien beharrak. Ipar aberatsa, Mendebaldeko industrialia edo postindustrialia ere deitzen duguna, bera bihurtu da orain arpilatzeke ehizaki (geure etxeko lan-baldintzak, natura, zerbitzu eta diru publikoak). Slavoj Žižek filosofoak bataiatu zuena metropolietan kolonialen *auto-kolonizazioa*.

#### PLANETA OSOAN, KAPITALISMO KOLONIALA

Ataka berri honetara ez gara kasualitatez iritsi. 1970eko hamarkada bukatu ondoren lan orduaren produktibitatea jais-tearekin batera merkatuak ere asetzen hasi ziren; eta globalizazioa deitu zen uholde handiarekin, kapitalak batetik, produkzio kosteak merketu nahi izan zituen -fabrikak herrialde atzeratuagoe-tara eramanez- eta, bestetik, salmenten bolumenak handitu, horretarako jende pobregoa ere kontsumora erakarrit, kreditu eta produktu berri merke.

Alabaina, funtsean ekonomiaren goranzko martxa erregaien prezio merkean oinarritu da, hori izan da hamarkada gutxitan xahutu dugun antzinako aurrezki preziatua. Orain, petrolio eskura erraza urritzen hasi denean, erregai konplexuago eta ustiatzen garestiagoen bila ari da aztarrika kapitala, munduko zoko guztietan, azken tanta preziatue-



### SIVENSEKO URTEGIA

FRANTZIAKO GATAZKA HAU IZAN ZITEKEEN HONDURASEN. "2014KO URRIAREN 26RA ARTE ZUHAITZAK ERAITSI ZITUZTEN. URRIAREN 26AN REMY ERAITSI ZUTEN 21 URTEREKIN" DIO PANKARTAK, POLIZIAK HILDAKO PROTESTARIA GOGOAN.

nak nondik eskuratuko. Erregai fosilen aroa gainditu behar omen duen *ekonomia berdea* ez da izango gai korapilo hori askatzeko, aro industrialaren logika es-traktibistan jarraitzen duelako.

Horregatik dio Ricard Lanatak, Ipar aberatseko jendeok hasi gara geure lar-ruan ezagutzen nola bizi izan diren luzaz Hego txiroko jendeak. Agur korporazio handiek metropolietako herritarrekin zeukaten nola-halako kontratuari: orain diruak eskatzen du Iparreko estatu eta administrazioek uko egitea kapitalen, ondasunen eta zerbitzuen zirkulazioen edozein kontrolei. Korporazioei zergak arindu edo kendu, lan-baldintzen arauak lausotu edo desegin, ingurumena babes-teko legeak deuseztu... lanpostu eta aberastasan promesa hutsalen truke.

Lanatak entzun balu Iñigo Urkullu lehendakaria Zaldibarko zabortegiaren

hondamendiaren harira behin eta berriz aldarrikatzen ingurumen gairik larri-nean ere administrazioari soilik paper subsidiarioa dagokiola, eta Josu Jon Ima-zek -Repsolen buru izan aurretik EAEko lehendakariorde zenean- 2000. urtean lege bihurtu zuela enpresen inpunita-tea... menturaz bere liburuan *Euskadi tropikalizatua* aipatuko zukeen, neoliberalen laborategien artean.

Izaera tropikal eta auto-kolonial ho-nek jadanik aldatu ditu gure eliteen psi-kologia eta politika egiteko moduak ere. Aldaketa arriskutsua disidenteentzat, zeren eta administrazio publikoaren hel-burua kapitalaren interesak defenditzea dagoela onartu duten unetik, bestela pentsatzen duten guztiak susmagarri eta bazter-nahastaile bihurtzen baitituz-te. Horregatik, Iparrean bezala Hegoan, agintariak gero eta gor-itsuago daude

protesta sozialen aurrean. Aspaldi da sistema liberalak ez dietela jaramonik egiten herritar eta taldeen interes ez-berdinak eta ezinegonak artikulatzeko sortutako tresna eta mekanismoak.

"Gure demokrazietako langile txiroak -dio Lanatak- zorpetuta daude kolonie-tako soroetan jornaleroak zeuden gisa beretsuan. Menpekotasunaren teoria, *periferia*-koentzako pentsatua, baliagarria zaigu gaur *zentro*-kooi. Beraz, Iparra tropikalizatzen ari baldin bada, *destropika-lizatu* egin behar dugu Hegoa. Ez dago benetazko hesirik haien eta gure artean, ez historikorik, ez eta intelektualik. Ar-kaikotzat geneuzkan gizarteek balio die-zagukete gure etorkizuna aurreikusteko. Hegokoen esperientzia eta teoria kon-tra-hegemonikoak harribitxiak zaizkigu, erresistitzeko bide posibleak erakusten dizkiguten heinean". ●